

Gasteiz, 2016ko ekainaren 9a

**OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN ESKOLA-
GARRAIOKO ZERBITZUAREN LIZITAZIOA**

**BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN ETA TEKNIKOEN
AGIRIA**

I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK.

1. ERAKUNDE ESLEITZAILEA.

OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELK.

2. KONTRATUAREN XEDEA.

a) OLABIDE IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEKO ikasleentzat –Lasarte errepidea, z.g. Gasteiz–eskola-garraioko zerbitzua egitea, Gasteizko ibilbideetan zein Arabako herrietako ibilbideetan, 2016/2017 ikasturterako –beste bi ikasturte gehiagorako luzatzeko aukerarekin–, betiere dokumentu honen I. ERANSKINEAN deskribatutako IBILBIDEEN ETA ORDUTEGIEN arabera.

b) Halaber, garraio-enpresa esleipendunak honako zerbitzu hauek egin beharko ditu (eskaintzen den prezio osoaren barruan):

- Gasteizko kultura-irteerak: ikasturte bakoitzean 125 zerbitzu gutxienez egin beharko da inolako kargu gehigarririk gabe (zerbitzuaren barruan autobus bakoitzeko joan-etorria hartuko da kontuan).

-Garraioko laguntzaileak/zaintzaileak egunero eramatea haien lanpostuetara, inolako kargu gehigarririk gabe.

-Ikastolako langileak egunero ikastolara garraiatzea, baldin eta aldez aurretik eskola-autobusa erabiltzeko asmoa jakinarazi badute, inolako kargu gehigarririk gabe.

-2 eta 3 urteko ikasleekin irailean egiten diren egokitzeneko aldiak, inolako kargu gehigarririk gabe:

* 3 urteko ikasleen kasuan, 3 ibilgailu esleituko dira 4 egunetarako 10:30eko ordutegian (datu orientagarria da, eta ikasturtearen beharretara egokituko da).

* 2 urteko ikasleen kasuan, 4 egunetan egingo dira zerbitzuak, Mendizorrotzatik Ikastolara 9:30eko ordutegian, eta 11:30ean egingo dira itzultzeko zerbitzuak (datu orientagarria da, eta ikasturtearen beharretara egokituko da).

-Batxilergoko ikasleak azterketak dituzten aldietan, gutxi gorabehera 12 zerbitzu eskatuko dira ikasturtean, hauek ere inolako kostu gehigarririk gabe.

-DBHko eta Batxilergoko ikasleak egunero garraiatzea Gasteizko kirol-instalazioetara, eta haien ohiko geralekuetara itzultzea, inolako kostu gehigarririk gabe.

Zerbitzuak egiteko hainbat edukieratako ibilgailuak erabili ahal izango dira, betiere eskola-garraiorako aginduzko baimenak badituzte.

Honako gutxi gorabeherako prezioak hartu dira aintzat, zerbitzuko eta bidaiari kopuruko:

- Langraizerako 7 bidaiarirentzako edukiera: 51,72€/zerbitzu, BEZ barne
- Murgiarako 8 bidaiarirentzako edukiera: 81,80€/zerbitzu, BEZ barne
- Murgiarako 22 bidaiarirentzako edukiera: 98,75€/zerbitzu, BEZ barne
- Gasteizerako 40 bidaiarirentzako edukiera: 38,92€/zerbitzu, BEZ barne
- Gasteizerako 55 bidaiarirentzako edukiera: 49,10€/zerbitzu, BEZ barne
- Gasteizerako 55 bidaiarirentzako edukiera: 49,10€/zerbitzu, BEZ barne
- Gasteizerako 62 bidaiarirentzako edukiera: 53,32€/zerbitzu, BEZ barne
- Gasteizerako 65 bidaiarirentzako edukiera: 55,60€/zerbitzu, BEZ barne
- Gasteizerako 70 bidaiarirentzako edukiera: 61,25€/zerbitzu, BEZ barne

C) Garraio-enpresa esleipendunak hitzartutako baldintzetan (orduko edo kilometroko prezioa) egingo ditu Gasteiztik kanpo egiten diren txangoak.

OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEKO ikasleen eta laguntzaileen/zaintzaileen garraio-zerbitzu horiek guztiak lehiaketa honetarako eskaintzen den prezio osoaren barruan sartzen dira.

Kontratatik agiri hau eta kontratu-izaera duten gainerako dokumentuak sinatuko ditu, eta klausula guztiak ezagutzen eta onartzen dituela jasoaraziko du. Horiek ez ezagutzeak edo ez jakiteak ez du horietan ezartzen dena betetzeaz salbuetsiko kontratista.

OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEKO ikasleen eta laguntzaileen/zaintzaileen garraio-zerbitzu horiek guztiak lehiaketa honetarako eskaintzen den prezio osoaren barruan sartzen dira.

Kontratatik agiri hau eta kontratu-izaera duten gainerako dokumentuak sinatuko ditu, eta klausula guztiak ezagutzen eta onartzen dituela jasoaraziko du. Horiek ez ezagutzeak edo ez jakiteak ez du horietan ezartzen dena betetzeaz salbuetsiko kontratista.

3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.

Lizitazio-aurrekontua 457.495,08 €-koa da (gehi BEZa), eta bertan sail independente gisa adieraziko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa.

Kontratuaren prezioa kontratuaren esleipenaren emaitzazkoa izango da, eta barnean hartuko du, modu independentean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

Kontratuaren xedean aditzera emandako garraio-zerbitzu guztiak ordaintzera zuzenduko da kontratuaren prezioa, betiere dokumentu honetako 2. atalean xedatutakoaren arabera.

Kontratuaren prezioan barnean hartuko dira aplikatzekoak izango diren gainerako edonolako zergak, tasak eta kanonak, tartean soldatari eta Gizarte Segurantzari dagozkion kostuak, baita agiri honetan aintzat hartzen diren betebeharren ondorioz esleipendunari sortzen zaizkion gastu guztiak ere.

Kontratistaren ordainsaria prezio segurua izango da, eta eurotan eman beharko da aditzera.

Kontratua luzatzea adostuz gero, luzatzen den ikasturte bakoitzean, esleipendunak prezio bera jasoko du kontratuaren xedearen barruan egin den zerbitzuagatik; gehienez, Arabako herrialdean metatutako Kontsumoko Prezioen Indizean gehitu ahal izango da zenbatekoa.

Kontratua luzatzearen kasuari dagokionez, inguruabar zehatzak ere ikusi beharko dira, hau da, ikasturte bakoitzean kontratatutako ibilbideak gehitzen edo murrizten diren izan beharko da kontuan. Bi aldeen artean adostasunik lortu ezean, ez da kontratua luzatuko.

4. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA GAUZATZEKO EPEA.

Kontratuak urtebeteko iraupena izango du kontratuaren dokumentuan finkatzen den datan hasita. Hala ere, jarduera 2016/2017 ikasturtearen aldiarekin bat etorriko da.

OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN eta garraio-enpresa esleipendunaren arteko kontratua luzatu ahal izango da, urtez urte, eta gehienez bi urteko aldi baterako.

5. ENPRESABURUAREN KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA.

5.1. GAITASUNA ETA AHALMENA.

Kontratatzeko ahalmena dute jarduteko gaitasun osoa duten eta legean ezarritako kontratatze debekuen edo bateraezintasunen mende ez dauden pertsona naturalek edo juridikoek, betiere kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute.

Era berean, enpresaburuek kontratuaren xedea den jarduera edo zerbitzua egiteko eska daitekeen, hala badagokio, enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak esleipendun izan daitezke, baina soilik kontratua zuzentzen bada haien estatutuen edo erate-arauen arabera berezkoak zaizkien xedeen, helburuen edo jardun-esparruen barnean dauden zerbitzuetara.

Gainera, errepidean zeharreko bidaiarien garraio diskrezionaleko zerbitzuak egiteko administrazio-baimena izan beharko dute (garraiolari titulua edo udalaren lizentzia), dagokion garraio-administrazioak eman beharko duena.

5.2. KAUDIMENA.

Kontratuak egiteko, enpresaburuek frogatu beharko dute eskola-garraio zerbitzu hau egiteko kaudimen ekonomikoko, finantzarioko, teknikoko eta profesionaleko baldintza minimoak betetzen dituztela.

Kaudimen ekonomikoa finantza-erakunde batek jaulkitako txosten baten bitartez frogatu beharko da. Txosten horretan jasoarazi beharko da lizitatzailleak erakunde horrekin lan egiten duela eta baliabide ekonomikoetan kaudimena duela.

Kaudimen tekniko eta profesionala lizitatzaillearen beraren txostenaren eta erantzukizunpeko adierazpenaren bidez frogatuko da; bertan lizitatzailleak jasoarazi eta aditzera eman beharko du kontratu honen antzeko kontratuen esleipendun suertatu ondoren kontratu horiekin izan duen esperientzia.

5.3. ZERGEN ETA GIZARTE-SEGURANTZAREN ARLOKO BETEBEHARRETAN EGUNEAN EGOTEA.

Indarrean dauden xedapenek ezarritako zergen eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharretan egunean daudela adieraziko duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute lizitatzailleek, eta erakunde publiko eskudunen egiaztagiri bidez frogatu beharko dute hori.

6. DOKUMENTAZIOA ETA GARRAIO-PROFILA LORTZEA.

Agiri honetan xedatutakoaren arabera GARRAIOA atalaren bidez argitara emango den kontratu honi buruzko informazioa eta dokumentazioa, OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN web-orrian kontsultatu ahal izango da.

II. KONTRATUAREN ESLEIPENA.

7. ESLEITZEKO PROZEDURA.

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko zaio eskaintza ekonomikorik onuragarrienari, esleipen-irizpideak baitira egokiak egin beharreko zerbitzuen ezaugarriekiko eskaintzen diren hobekuntzen interesa ebaluatzeko.

8. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

8.1. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA.

Proposamenak OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN idazkaritzan aurkeztu beharko dira –Lasarte errepidea, z.g. Gasteiz–, 2016ko ekainaren 24aren 14:00ak baino lehen. Ez da onartuko lizitazio-iragarkian adierazitako epea amaitu ondoren ikastolan jasotzen den inolako proposamenik.

8.2. LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK.

Lizitatzailerak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ezta beste lizitatzailerak batzuekin aldi baterako elkarrekin bidezko proposamenik aurkeztu ere. Arau horiek urratzen badira, ez dira onartuko lizitatzailerak horrek sinatutako proposamen guztiak.

8.3. LIZITATZAILEENTZAKO INFORMAZIOA.

Informazio gehigarria edo osagarria eskatu behar denean, OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK informazio hori helaraziko du eskaintzak jasotzeko finkatutako epe-muga baino sei egun lehenago, gutxienez –betiere eskaera aurkeztu data hura baino zortzi egun lehenago, gutxienez–. Lizitazioaren iragarkian aurreikusitako fax-zenbakian edo helbide elektronikoan egingo da eskaera hori.

8.4. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA ETA EDUKIA.

Lizitatzailerak HIRU GUTUN-AZAL sinatu eta itxi aurkeztu beharko dituzte, horien edukiaren sekretua berma dadin.

Gutun-azal horietako bakoitzaren kanpoaldean lizitatzaileraren izena eta, hala badagokio, ordezkararen izena adierazi beharko da, baita helbide soziala, telefonoa, helbide elektronikoa, fax-zenbakia eta, azkenik, zerbitzuaren titulua. Gutun-azalaren barruan, ondoren zehaztuko den dokumentazioa sartu beharko da.

8.4.1 Bat zenbakiko gutun-azala, aurretiazko betekizunak frogatzeko dokumentazioa.

- a) Aurkibidea.
- b) Lizitatzaileraren datuen laburpen-orria. Bertan jasotzeko da lizitatzaileraren izena, IFZ, helbidea, telefono-zenbakia, fax-zenbakia, helbide elektronikoa eta harremanetarako pertsona.
- c) Ondoren zerrendatzen diren dokumentuak. Dokumentu horiek fotokopia bidez aurkeztu ahal izango dira, erantzukizunpeko adierazpenak izan ezik –horiek jatorrizkoak izan beharko dute–. Kasu horretan, lizitatzailerak esleipendun proposatuz gero jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak jartzeko konpromisoa hartzen du, betiere agiri honen 2.3.2. klausulan aurreikusten denaren arabera:

- Enpresaburuaren nortasuna, ahalmena eta jardun-esparrua frogatuko duten dokumentuak. Enpresa pertsona juridikoa bada, nortasuna frogatuko da Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eratze-eskritura aurkeztuta edo, hala badagokio, aldatze-eskritura aurkeztuta, betiere betekizun hori eska daitekeenean aplikatzekoa den merkataritza-legeriaren arabera. Baldintza hori eskatu ezin denean, jarduteko ahalmena frogatu beharko da dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden eratze-eskrituraren edo eratze-dokumentuaren bidez, estatutuen bidez edo eratze-aktaren bidez –bertan jasoarazi beharko dira haren jarduera arautzen duten arauak–.

Pertsona juridikoak esleipendun izan daitezke, baina soilik kontratua zuzentzen bada haien estatutuen edo eratze-arauen arabera berezkoak zaizkien xedeen, helburuen edo jardun-esparruen barruan dauden zerbitzuetara. Jartzen den dokumentazioan frogatu beharko da alderdi hori.

Banako enpresaburua bada, OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK haren nortasunaren datuak egiaztatuko ditu, eta nahitaez aurkeztu beharko du NANaren fotokopia edo hori arauz ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia.

- Ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak, hala badagokio. Beste baten izenean bertaratzen diren edo proposamenak sinatzen dituztenek horretarako behar besteko ahalordea aurkeztu beharko dute, baita haien NANaren fotokopia edo hori arauz ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia ere.
- Ingurumen-kudeaketa eta kalitatea bermatzen dituzten arauak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak. Enpresaburuak kalitatea bermatzeko arauak eta ingurumen-kudeaketako arauak betetzen dituela ziurtatzen duten egiaztagiriak.
- Lizitatzailerearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala frogatzen duten dokumentuak, dokumentu honen 5. atalean ezarritakoaren arabera.

Ondorio horretarako, hauek dira 5. atalean jada aipatu ditugun dokumentuak:

- i. Kaudimen ekonomikoa finantza-erakunde batek jaulkitako txosten baten bitartez frogatu beharko da. Txosten horretan jasoarazi beharko da lizitatzailereak erakunde horrekin lan egiten duela eta baliabide ekonomikoetan kaudimena duela.
- ii. Kaudimen teknikoa eta profesionala lizitatzailerearen beraren txostenaren eta erantzukizunpeko adierazpenaren bidez frogatuko da; bertan lizitatzailereak jasoarazi eta aditzera eman beharko du

kontratu honen antzeko kontratuen esleipendun suertatu ondoren izan duen esperientzia.

- Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duten dokumentuak.

Ondorio horretarako, zerga-betebehar guztietan eta Gizarte Segurantzarekiko betebehar guztietan egunean izatearen erantzukizunpeko adierazpena; eta Ogasunaren bulego eskudunaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokor eskudunaren egiaztatgiriak.

- Errepidean zeharreko bidaiarien garraio diskrezionaleko zerbitzuak egiteko administrazio-baimena (garraiolari titulua edo udalaren lizentzia), dagokion garraio-administrazioak eman beharko duena.

8.4.2. Bi zenbakiko gutun-azala, erreferentzia teknikoak.

- a) Garraio-zerbitzua egiteko beharrezko material mugikorra dutela ziurtatuko duen justifikazioa. Baldintza teknikoak eta administratiboak betetzen dituzten haien titulartasunpeko ibilgailu guztien zerrenda txertatu beharko dute, horien matrikulak eta lehen matrikulazioaren datak adierazita. Garraioaren arloko agintaritzak eskudunak ziurtatutako zerrenda izan beharko du. Kontratua indarrean dagoen edozein unetan eskatu ahal izango dio OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK garraiolari esleipendunari ibilgailuen zerrenda eguneratua aurkeztea –zerrenda horrek lizitazioaren unean aurkeztutako zerrenda ordeztuko luke–.
- b) Segurtasun- eta erosotasun-neurriak balioztatzeke, berriz, ibilgailu bakoitzaren arlo horretako neurriak ziurtatzen dituen zerrenda eta erantzukizunpeko adierazpena txertatu beharko da.
- c) Behar bezala baimendutako erakunde aseguratzailearen egiaztatgiriak, honako estaldura hauek dituen erantzukizun zibileko aseguru-poliza kontratatu dela egiaztatuko duena:
 - Sozietatearen edo enpresaren erantzukizun zibil orokor boluntarioa; garraioaren jardura osagarriaren eta gehigarriaren ondorioz bidaiariak edo erabiltzaileak izan ditzakeen kalteei gehienez limiterik gabeko euroko mugara arte erantzungo dien erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu izanaren justifikazioa –kontratuaren indarraldi osorako–, betiere Sustapen Ministerioaren Garraio Zuzendaritza Nagusiaren 1/2003 Koordinazio Ebazpenean ezarritakoaren arabera, eta nahitaezko aseguruaren arloan indarrean dagoen legeria betetzea galarazi gabe.
 - Bidaiarien nahitaezko aseguruak, abenduaren 22ko 1575/1989 Errege Dekretuaren arabera: erreferentziazko araudiaren arabera arautzen da bidaiarien nahitaezko aseguruak, heriotzako, baliaezintasun iraunkorreko, aldi baterako desgaitasuneko eta osasun-asistentziako bermeekin.

- Ibilgailu motordunean zirkulatzearen ondoriozko erantzukizun zibila. Nahitaezko aseguru.
- Ustiapeneko erantzukizun zibila.

8.4.3. Hiru zenbakiko gutun-azala, balioztatutako esleipen-irizpideei eta eskaintza ekonomikoari buruzko dokumentazioa.

- a) Gutun-azal horretan, eskaintza edo proposamen ekonomikoa sartu beharko da, behar bezala sinatuta eta datatuta; II. ERANSKINEAN finkatutako proposamen ekonomikorako ereduari jarraituta idatzi beharko da, eta ez dira ez-esanak, akatsak edo ezabatzeak onartuko, baldin eta OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi jakitea eragozten badute.

Kontratatzaileen eskaintzetan sail independente gisa adierazi beharko da jasanarazi beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa.

Eskaintza ekonomikoaren prezioan barnean hartutzat joko dira, ondorio guztietarako, aplikatzekoak izango diren gainerako zergak, tasak eta kanonak, tartean soldatari eta gizarte-segurantzari dagozkion kostuak, baita agiri honetan aintzat hartzen diren betebeharren ondorioz esleipendunari sortzen zaizkion gastu guztiak ere.

Lizitatzailerak bakoitzak eskaintza ekonomiko bakarra aurkeztu beharko du, eta ez dira onartuko lizitazio-aurrekontua baino zenbateko handigoa duten eskaintzak.

- b) Era berean, esleitzeko irizpideei dagokienez beharrezkoa den dokumentazioa txertatu beharko da, aurreraxeago deskribatuko den bezalaxe.
- c) Azkenik, eskaintzak baldintza teknikoak betetzen dituela egiaztatzeko aukera emango duten eta Baldintza Teknikoen Agirian espresuki aditzera ematen diren bestelako dokumentuak ere barnean hartu beharko ditu lizitatzailerak.

8.4. PROPOSAMENAK AURKEZTEAREN ONDORIOAK.

Proposamenak aurkezteak esanahi du enpresaburuek baldintzarik gabe onartzen dituztela agiri honetako klausulak eta baldintzak, salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Gainera, OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK eskatzen dituen kontratatze baldintza guztiak eta horietako bakoitza betetzen diren erantzukizunpeko adierazpena ere bada.

Azkenik, lizitatzailerak ezin izango dute proposamena kendu hiru hilabeteko epean, proposamenak aurkezteko irekitze-datatik zenbatzen hasita.

9. PROPOSAMENEN AZTERKETA ETA ESLEIPENA.

9.1. KONTRATAZIO-ORGANOAK.

OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN Zuzendaritza Kontseilua izango da kontratazio-organoa. Zuzendaritza Kontseiluak kontratazio-organoko kideez osatutako Kontratazio Batzorde murrizta izendatu ahal izango –hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren aholkularien parte-hartzearekin–, eta batzorde horrek aztertuko ditu aurkezten diren eskaintzak eta proposatuko ditu 3 finalista; azkenean, Kontratazio Organoak erabakiko du horien artean.

9.2. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA.

Kontratazio Organoak edo, hala badagokio, Kontratazio Batzordeak ireki eta aztertuko ditu proposamenetako bakoitza osatzen duten gutun-azalak, proposamenak aurkezteko gehieneko epea amaitzen denetik 10 egun balioduneko gehieneko epean.

9.3. KONTRATAZIO-ORGANOAREN ETA/EDO KONTRATAZIO-BATZORDEAREN EGINTZEN ETA EMAITZAREN PUBLIZITATEA; ETA ERAGINPEAN DAUDEN LIZITATZAILEEI ZUZENDUTAKO JAKINARAZPENA.

Ikastolaren web-gunearen GARRAIOA profilean argitara emango da Kontratazio Organoak edo, hala badagokio, Kontratazio Batzordeak eskaintzen kalifikazioari, onarpenari edo bazterketari eta esleipenari dagokionez hartutako erabakiaren emaitza –Ikastolaren web-gunea iragarki-taula gisa erabiliko da–. Indarrean dagoen legeriaren arabera argitaratu ezin den informazioa baztertu egingo da. Eraginpean dauden lizitatzaillei egin beharreko komunikazioa edo jakinarazpena galarazi gabe egingo da hori guztia.

9.4. ESKAINTZAK BALIOZTATZEA ETA ARGITZEA.

Bere funtzioak betetzeko, Kontratazio Organoak edo, hala badagokio, Kontratazio Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu. Era berean, txosten horiek eskatu ahal izango ditu, iruditzen zaionean egiaztatu behar dela eskaintzak agirietako baldintza teknikoak betetzen dituztela. Eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak ez dira balioztatuko.

Aurkeztutako eskaintzari buruzko edozein argibide eska diezaioke Kontratazio Batzordeak lizitatzailleari, baita eskaintzaren idazketan ageriko huts-egite materialak zuzendu behar badira ere; edonola ere, tratu-berdintasuneko printzipioa errespetatu beharko da, eta ezin izango dira, inola ere, eskaintzaren nondik norakoak aldatu.

9.5. EZOHIKO EDO PROPORZIOZ KANPOKO BALIOAK DITUZTEN ESKAINTZAK.

Kontratazio Organoak parametro objektiboak finkatu ahal izango ditu proposamen bat ezohikoa izateagatik edo proportzioz kanpokoa izateagatik bete ezin dela ulertzeko.

Ondorio horretarako, Kontratazio Aurrekontura egokitzen ez diren eskaintzak izan beharko dira kontuan.

9.6. ESKAINTZEN KALIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA, ETA ESLEIPEN-PROPOSAMENA.

Eskaintzak balioztatu ostean, Kontratazio Batzordeak, hala badagokio, Kontratazio Organoari helaraziko dio esleipen-proposamena. Proposamen horretan goitik behera sailkatuta agertuko dira eskaintzak, horietako bakoitzari Eranskinetan adierazitako irizpideen arabera emandako puntuazioa adierazita eta ekonomikoki onuragarriena zein den adierazita.

9.7. EKONOMIKOKI ESKAINTZARIK ONURAGARRIENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DITUELA JUSTIFIKATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

Formulatutako esleipen-proposamena ikusirik, Kontratazio Organoak goitik beherako ordenan sailkatuko ditu proportzioz kanpokotzat edo ezohikotzat jo ez diren gainerako proposamenak, eta ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen eta puntuaziorik handiena lortu duen lizitatzaileri eskatuko dio 10 egun balioduneko epean – eskakizuna jaso duen egunetik zenbatzen hasita– honako jatorrizko dokumentazio hau auzer dezala:

- a) Konpromisoaren arabera, kontratua gauzatzera zuzenduko edo bideratuko dituen bitartekoak benetan dituela frogatuko duten dokumentuak.
- b) Ordezkaritza, hala badagokio, egiaztatuko duten dokumentuen askiespena.
- c) Zergen arloko eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak egunean dagoela egiaztatuko duten ziurtagiriak.
- d) Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren mende dauden jarduerak egiten direnean: aribideko ekitaldiari dagokion alta, edo azken ordainagiria, zerga horren matrikulan baja hartu ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena eta, hala badagokio, salbuetsita egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- e) Bestelako dokumentazioa. Kontratazio Organoak eska diezaiokeen kontratatzeke ahalmenari buruzko beste edozein dokumentu.

Kontratazio Organoak aurrez aurkeztu diren erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeke ahalmena balia dezake, eta, horretarako, bidezko frogagiriak aurkeztea eska dezake.

Eskakizun hori adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzailak eskaintzan atzera egin duela, eta, hartara, eskaintzen sailkapenean hurrengo lizitatzaileri eskatuko zaio dokumentazio bera. Edonola ere, ondorio hauekin lotzen den guztian konfidentzialtasun-betebeharrari eusteko konpromisoa hartzen du.

9.8. BEHIN BETIKO BERMEA.

Aurreko atalean bildutako dokumentazio guztiaz gain, behin betiko bermea eratzearen egiaztatzea aurkeztu beharko da. Behin betiko berme hori esleipen-zenbatekoaren % 3koa izango da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo.

Behin betiko berme hori zerbitzuaren ondorioz jaulkitzen den lehen fakturaren prezioan atxiki daiteke; kasu horretan, gutun sinatua eta datatua bidali beharko dio kontratistak OLABIDE IKASTOLA, KOOP ELKARTEARI, alderdi hori jakinarazita.

Berme horren gain gauzatzen badira esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak, esleipendunak bermea zenbateko horretan birjarri edo zabaldu beharko du, gauzatu eta hamabost eguneko (15 eguneko) epean; hala egiten ez bada, kontratua ezeztatzeke kausa izango da.

Kontratuaren aldaketa baten ondorioz prezioak aldaketa bat izaten badu, bermea ere berregokitu beharko da, aldatutako prezioarekiko proportzioari euts diezaion. Enpresaburuari aldaketa-akordioa jakinarazi, eta hamabost egun naturaleko epea dago bermea berregokitzeko.

9.9. ESLEIPENA.

Kontratazio-organoak 9.7. klausulan aditzera ematen den dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan esleitu beharko du kontratua.

Esleipenak arrazoitua izan beharko du, eta Kontratugile Profilean emango da argitara.

Esleipen-egintzaren aurka ezin izango da errekurtsorik edo erreklamaziorik jarri; izatez, zuzenbide pribatuaren mende dagoen prozesua da; OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK kontratatzeke erabateko askatasuna du, eta aldean borondate-autonomia librearen printzipioaren mende dago.

10. KONTRATUA FORMALIZATZEA.

OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN eta lizitazio-prozedura honetako garraio-enpresa esleipendunaren –eta kontratistaren– arteko harremanaren baldintzak arautuko dituen kontratua lizitazioaren baldintzetara egokituko da, eta esleipenaren egunetik 15 eguneko gehieneko epean gauzatu beharko da.

Kontratuaren formalizazioarekin gauzatuko da kontratua, eta ezin izango da inola ere kontratua gauzatzen hasi, baldin eta alde aurretik formalizatu ez bada.

III. KONTRATUA GAUZATZEA.

11. AZPIKONTRATAZIOA.

Erabat debekatuta dago azpikontratazioa.

12. OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK LANAK BALIOZTATZEA.

OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK balioztatuko ditu garraio-enpresa esleipendunak, eta kontratistak, egindako zerbitzuak; kontratuan ezarri diren epemugetan balioztatuko dira zerbitzuak, eta segidako traktukoa bada eta beste ezer xedatzen ez bada, hilean behin.

13. EGINDAKO ZERBITZUAREN PREZIOA ORDAINTZEA KONTRATISTARI.

Zerbitzua egin, eta faktura aurkeztu ondoren ordainduko da zerbitzua. Ondorio horretarako, amaitutako aurreko hileko zerbitzuak egin, eta gehienez 30 eguneko epean bidali beharko du kontratistak hileko faktura, betiere OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN adostasunarekin. Aurkeztutako fakturak eska daitekeen eskakizunen bat betetzen ez duela ikusten bada, hura zuzentzea eskatuko da, eta hori zuzendu arte ez da konputatuko hurrengo paragrafoan adierazitako epea.

OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK berresten dituen fakturak 60 egun naturaleko epean ordainduko ditu.

14. KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Kontratazio Organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du, eta hari egokituko zaio kontratua gauzatzearen nondik norakoak ikuskatzea, bidezko erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea, itundutako zerbitzugintza behar bezala gauzatzen dela ziurtatzearen.

Kontratuaren arduradunaren edo kontratazio-organoko ordezkariaren egitekoak dira:

- a) Baldintza Teknikoen Agiria interpretatzea, baita kontratuan edo xedapen ofizialetan ezarritako gainerako baldintza teknikoak ere.

- b) Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eta antolamendua eskatzea.
- c) Kontratuaren helburuak lortzeko bidezko aginduak ematea.
- d) Sartzea komeni diren aldaketak proposatzea.
- e) Hala badagokio, egiaztagiri partzialak jaulkitzea eta adostutako gauzatze- eta ordainketa-epeen arabera egindako lanei dagozkien fakturak egitea.
- f) Kontratuaren garapenean sortzen diren gertakariak tramitatzea.
- g) Lanak ondo gauzatzeko eta ikuskatzeko bidezko iruditzen zaizkion bilerak deitzea –enpresa esleipenduneko ordezkariak nahitaez joan beharko du bilera horietara, kontratua gauzatzean esku hartzen duten fakultatiboek, teknikariek, abokatuek edo espezialistek lagunduta–.

Kontratuaren arduraduna izendatzeak edo ez izendatzeak, eta horrek dagozkion ahalmenak baliatzeak edo ez baliatzeak, ez du kontratista salbuetsiko kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeaz, urritasunak haren zuzeneko agindu baten ondoriozkoak direnean izan ezik.

Kontratuaren arduradunaren izendapena idatziz jakinaraziko zaio kontratistari, kontratua formalizatzen den egunetik zenbaten hasita hamabost eguneko epean; hala badagokio, haren ordezkapena ere jakinaraziko zaio, epe berean, baina ordezkapena gertatzen den egunetik hasita.

Arduraduna eta haren laguntzaileak, kontratistaren ordezkariarekin batera, askatasun osoz sartu ahal izango dira zerbitzua egiten den lekura.

Kontratistak, inolako kostu gehigarririk gabe, emango dio laguntza profesionala OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEARI azalpen- edo informazio-bileretan –kontratututako zerbitzugintzaren aprobetxamendurako beharrezkotzat jotzen dituen bileretan–.

15. ZERGAK.

Lizitatuzaileek egiten dituzten eskaintzetan zein esleipen-proposamenetan barnean hartuko dira, ondorio guztietarako, askotariko kontzeptuak kargatzen dituzten zergak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne –indarrean dagoen legeriaren arabera partida independente gisa kargatuko dena–.

16. ONDORENGOTZA KONTRATISTARENGAN.

Enpresak edo enpresetako jarduera-adarrak bat egiten duten, banantzen diren, txertatzen diren edo eskualdatzen diren kasuetan, kontratuak indarrean jarraituko du emaitzazko erakundearekin, eta emaitzazko erakunde horri subrogatuko zaizkio kontratuarekin lotzen diren eskubideak eta betebeharrak. Kontratistaren betebeharra izango da OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEARI jakinaraztea haren nortasun juridikoan eragina duen

edozein aldaketa. Kasu horietan, eten egingo da dagozkion fakturak ordaintzeko legez aurreikusitako epeen konputua, subrogazio-baldintzak betetzen direla egiaztatzen den arte.

Kontratua atxikitzen zaion erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak ez betetzeagatik ezin bada subrogazioa egin, kontratua amaitutzat joko da eta kontratistaren erruz balio gabetutako kasua izango da ondorio guztietarako.

17. KONTRATISTAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK.

Kontratu honen erregimen juridikoaren ondoriozko betebeharrak orokorrez gain, hauek dira kontratistaren berariazko betebeharrak:

17.1. LAN, GIZARTE, ZERGA ETA INGURUMEN BABESAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Garraio-enpresa esleipendunak -kontratatutak- dagozkion betebeharrak betetzeko kontratu behar dituen langileak haren mendekoak izango dira soilik, eta kontratuari amaiera ematen zaionean ezin izango da inola ere lan horiek egin dituzten pertsonak organo kontratatzailearen langile gisa finkatu.

Kontratatutak hainbat arlotan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu (zerga-arloan, lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzearen arloan, laneko arriskuen prebentzioaren arloan, ingurumenaren babesaren arloan eta abar), baita indarrean dagoen araudian ezartzen diren xedapenak, kontratazio hau arautzen duten agirietan ezartzen diren xedapenak eta enpresa esleipendunak sinatzen duen kontratuan ezartzen diren xedapenak ere.

17.2. BAIMENAK ETA LIZENTZIAK KUDEATZEARI DAGOZKION BETEBEHARRAK.

Kontratatutak kudeatu beharko ditu -Kontratazio Organoak berak kudeatzea erabakitzen ez badu eta hala espresuki jakinarazten ez badu- udal-ordenantzeta eta beste edozein organismo publikoren edo pribaturen arauetan zerbitzua hasteko eta egiteko ezartzen diren baimenak eta lizentziak, eta Administrazioari horretarako beharrezkoak diren dokumentuak eskatuko dizkio.

17.3. LANEKO SEGURTASUN- ETA OSASUN-PLANA.

Kontratuaren xedearen izaeraren ondorioz egin behar den lana langileen segurtasunerako edo osasunerako arrisku berezikoa bada -arrisku fisikoa izan zein arrisku psikofisikoa, kimikoa edo biologikoa izan-, esleipendunak Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztu beharko du. Plan horretan honako alderdi hauek, besteak beste, jasoko dira:

- a) Lanbide-istripuak edo -gaixotasunak kontrolatzea.
- b) Segurtasun eta Osasun Planaren jarraipenaz eta zaintzaz arduratuko den pertsona zehaztea.

Zerbitzugintzari hasiera eman aurretik onartu beharko du Kontratazio Organoak Segurtasun eta Osasun Plana, betiere teknikari eskudun batek jaulkitako aldeko txostenaren ondoren.

18. KONTRATISTAK ZERBITZUA EGITEA EDO GAUZATZEA.

Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian aintzat hartutako klausulak zorroztasunez beteta gauzatuko dira kontratistak egin beharreko zerbitzuak, eta zehazki honako betebeharrak beteta:

- a) Debehatuta dago zerbitzua azpikontratatzeko, idazki honen 11. klausulan ezartzen den bezalaxe.
- b) Gauzatzeko epe orokorra idazki honetan dagokion klausulan ezarriko da.
- c) Ikasleak garraiatzeko zerbitzua Baldintza Teknikoen Agirian jasotzen den zerrendako ibilgailuetakoren batekin egingo da. Salbuespenezko kasuetan soilik, eta Kontratazio Organoaren oniritzia eta onarpena lortu denean, erabili ahal izango dira noizean behin beste ibilgailu batzuk. Baimen hori ikasturtean gehienez 15 eskola-eguneko epe baterako izango da, eta beti egingo da garraiolari esleipendunaren ibilgailuei eskatzen zaizkien betekizunak betetzen dituzten beste garraiolari batzuen titulartasuneko ibilgailuetan.

Epe hori aplikatuko da, halaber, ibilgailu batean luzaroko matxura gertatzen denean; kasu horretan esleipenean jasotako ibilgailuaren antzeko ezaugarriak dituen beste batekin ordeztu beharko da ibilgailua.
- d) Kontratistak idazki honetako 8. eta 22. klausuletan aipatzen diren aseguru-primen ordainketan egunean egon beharko du kontratuaren indarraldi osoan.
- e) Kontratistak bere arriskupean eta menturapean gauzatuko du kontratua, eta ez du zerbitzuan sortutako galeren, matxuren edo kalteen ondoriozko kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik, ezinbesteko kasuak izan direnean izan ezik.
- f) I. eta II. eranskinetan hala adierazten denean, eta kontratu honen mende dagoen garraioa egiteko indarrean dagoen legeriaren arabera, nahitaezkoa izango da zerbitzua egiten den ibilgailuan laguntzaile bat egotea -OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK kontratatutakoa-. Langile hori arduratuko da ikasleei arreta emateaz, laguntzeaz eta zaintzeaz, bidaia egiten den bitartean zein ibilgailura igotzeko eta jaisteko unean.
- g) Eskola-garraioa egiten duten ibilgailuak identifikatuta egon beharko dute zerbitzua egiten duten bitartean; eskola-garraioa ibilgailuen Araudi Orokorrean aditzera ematen den seinalea eraman beharko dute. Ibilgailuen Araudi Orokorrak ezartzen dituen dimentsioak, koloreak eta ezaugarriak izango ditu seinale horrek.

Bereizgarri hori ibilgailuaren barruan kokatu beharko da, aurrealdean eta atzealdean, kanpotik ikusteko moduan. Bereizgarri horrek une oro egon beharko

du ezin hobe ikusteko baldintzetan, egiten duten garraio mota eta garraioaren ezaugarria berehala identifikatzeko moduan hain zuzen ere. Garraiolaria arduratuko da bereizgarri horiek jartzeaz eta kontserbatzeaz.

Era berean, garraiolari esleipendunak ibilgailuaren aurrealdean -kanpoaldetik ikusteko moduan- jarri beharko du OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN garraio-zerbitzua dela identifikatuko duen txartela.

- h) Kontratu honen mende dagoen garraioa egitean, garraiolariak higie- eta garbitasun-baldintza egokietan mantendu beharko du ibilgailua, eta ibilgailuaren barruko elementu guztiek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatu beharko du, bereziki ikasleek ukitzen dituzten elementuek (leihatilek, eserlekuek, segurtasun-uhalek, berogailuek eta abar).
 - i) Era berean, une oro mantendu beharko da ahalik eta arretarik handiena ikasleekiko tratuan eta horiei geltokiraino laguntzen dieten gurasoekiko tratuan, eta ikastetxearen zuzendaritzari berehala jakinarazi beharko zaizkio sor daitezkeen gertakariak. Istripuren bat edo ezbeharren bat izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaio OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEARI.
 - j) Kontratu honen mende dagoen garraio-zerbitzua egitean, ezin izango da, inola ere, ibilgailuen plaza kopuruaren arabera baimendutakoa baino bidaiari kopuru handiagoa garraiatu -indarrean dagoen araudiak aurreikusten duena kontuan izanik-, ezta ibilgailuan kontratu honen mende dauden pertsonen bestelako pertsonak sartu ere.
 - k) Kontratu honen mende dagoen garraioa egitean, eskola-ibilgailuen eta adin txikikoen garraioko ibilgailuen zirkulazioari eta trafikoari buruzko araudian ezartzen diren segurtasun-betekizun guztiak bete beharko ditu garraiolariak, baita estatuko, autonomiako eta tokiko beste arau batzuetan modu orokorrean edo espezifikoan aurreikusten diren -edo kontratuaren indarraldian aurreikus daitezkeen- gainerako betekizunak ere.
- Agiri honetan edo honen eranskinetan aipatzen diren kontratua gauzatzeko baliabide pertsonalak edo materialak atxikitze konpromisoa bete ezean, kontratua ezeza daiteke -espresuki hala erabakitzen bada- edo, hala badagokio, adierazten diren zigorrak ezar daitezke.
- l) Kontratuak irauten duen aldian, OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK bere garaian onartutako eskola-egutegian ezartzen diren eskola-egunetan egingo da zerbitzua, baita txango bat edo kultura-irteera bat egiteko ezartzen diren egunetan ere.
 - m) Ibilgailuetara sartzeko itxaronaldia, eta, behin ibilbidea egin ondoren, ikastolara sartzeko itxaronaldia ezin izango da 10 minututik gorakoa izan, betiere geltokian bidaiariak hartzeko aurreikusitako orduari dagokionez eta ikastolara sartzeko aurreikusitako orduari dagokionez.

- n) Zerbitzuak egiteko, bestalde, hainbat edukieratako ibilgailuak erabiltzen saiatuko da, betiere eskola-garraioko aginduzko baimenak badituzte. Hartara, ibilbide bakoitzeko erabiltzaile kopurura egokitu ahal izango dira ibilgailuak.
- o) Kontratu honetan xedatutako ondorioetarako, eskola-garraioko ibilbidetzat joko da soilik bidaiaria sinpleetako bakoitzaren abiapuntuaren eta helmugaren arteko ibilbidea; hortaz, ez dira konputatutako garraiolariak ibilbide horietako bakoitza egiteko ibilgailua hutsik dutela egin behar dituzten tartearik.
- p) Eguneko garraio-zerbitzua egitean sor daitekeen gorabeheraren batek zerbitzuari uztea edo zerbitzua atzerapenez egitea eragiten badu, garraiolariak lehenbailehen eman beharko die horren berri eraginpean dauden ikasleei eta OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEARI.
- q) Era berean, enpresa garraiolari esleipendunak onartu egingo du ikastetxeko langileek ere bidaiatzea kontratu honen mende dauden ohiko ibilbideetan eta ordutegietan, betiere alde aurretik OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEARI jakinarazi badiote eta ibilgailuetan ikasleen plaza libreak badaude. Bestalde, garraiolariak plaza ziurtatu beharko du, kostu gehigarririk gabe, txango, irtenaldi, igerileku eta abarrerako zerbitzu berezietan ikasleei lagunduko dieten irakasleentzat eta zaintzaileentzat.
- r) Eskola-garraioko ibilbideetara atxikitako ibilgailuetako gidariak telefonoa eduki beharko dute, ibilbidea egiten dutenean berehala lokalizatu ahal izan daitezen. OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEARI jakinarazi beharko diote telefono-zenbaki hori.

19. LAGUNTZAILEAK/ZAINTZAILEAK.

Laguntzaile/zaintzaile lana egiten dutenak arduratuko dira ikasleei arreta emateaz eta laguntzeaz eta horiek zaintzeaz, bidaietan zein ibilgailuetara igotzean eta ibilgailuetatik jaistean.

Laguntzaileek/zaintzaileek OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK kontratatutako langileak izango dira, eta kontratistak ibilgailuetan egoten utzi eta garraiatu beharko ditu, haien lana egin ahal izan dezaten.

Garraioak egiteko, nahitaezkoa izango da laguntzaile bat gutxienez egotea ibilgailuan, betiere garraioa ez egitea ikasleentzat arrisku handiagoa izan daitekeenean izan ezik.

20. EZ-BETETZEAK, KONTRATUA BALIOGABETZEA ETA ZIGORRAK.

Kontratistak idazki honetako klausulan finkatutako epe osoaren barruan bete beharko du kontratua.

Kontratuaren betebeharrak ez-betetzearen kausak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Ez-betetze arinak dira:

- a) OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAN eskolatuta ez dauden edo laguntzaileak ez diren pertsonak garraiatzea.
- b) Ikasleak igotzea edo jaistea geraleku baimendugabeetan.
- c) OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEARI ibilgailuen dokumentazio eguneratua ez aurkeztea. Dokumentazio hori ez dela aurkeztu ulertuko da dokumentazioa eguneratu behar zenetik astebeteko epea pasa eta oraindik aurkeztu ez denean.
- d) Laguntzaileekin/zaintzaileekin lankidetzan ez jardutea.
- e) Higiene- eta garbitasun-baldintza egokietan ez mantentzea ibilgailua, eta ibilgailuaren barruko elementu guztiek behar bezala funtzionatzen dutela ez ziurtatzea, bereziki ikasleek ukitzen dituzten elementuek (leihatilek, eserlekuek, berogailuek eta abar).
- f) Ezarritako Ibilbideak aldatzea, aldez aurretik Kontratazio Organoaren adostasuna izan gabe.

Ez-betetze larriak dira:

- a) Ikastetxe bakoitzerako ezarritako ordutegia justifikaziorik gabe ez-betetzea.
- b) Eskola-garraioko baimenak ematea eragin duten arauak urratzea, baita agiri hauek urratzea ere.
- c) Salbuespeneko kausen ondorioz ibilgailua aldi baterako ordeztuko baimena eskatu ez izana, betiere klausulan jasotako betekizunen arabera.
- d) Eranskinean barnean hartzen ez diren ibilgailuak erabiltzea, klausulan ezarritako baimen zehatza izan ezik.
- e) Eskola-garraioko eta adin txikikoen garraioko segurtasun-baldintzei buruzko apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusten diren baldintzak ez-betetzea.
- f) Ikasturtean hiru matxura errepikatzea, ikasle erabiltzaileak kaltetuta.
- g) Kontratuaren indarraldian hiru ez-betetze arin edo gehiago egitea.

Ez-betetze oso larriak dira:

- a) Ikuskapen-egitekoak eragozteak.
- b) Gidarien zuhurtziarik eza.

- c) Eskola-garraioko eta adin txikikoen garraioko segurtasun-baldintzei buruzko apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuan aurreikusten diren segurtasun-betekizunetako edozein ez-betetzea.
- d) Kontratuaren indarraldian hiru ez-betetze larri edo gehiago egitea.

Kontratua ez betetzeagatik Kontratazio Organoak kontratua baliogabetzeko duen ahalmena galarazi gabe, kontratistari egin beharreko ordainketak murriztu ahal izango dira, honela:

- a) Ez-betetze arinagatik, ez-betetzearen larritasunarekiko proportziozkoa izango da zigorra, eta gehienez kontratuaren zenbateko osoaren % 10aren zenbateko baliokidea izango da.
- b) Ez-betetze larriagatik, ez-betetzearen larritasunarekiko proportziozkoa izango da zigorra, eta gehienez kontratuaren zenbateko osoaren % 25aren zenbateko baliokidea izango da.
- c) Ez-betetze oso larriagatik, ez-betetzearen larritasunarekiko proportziozkoa izango da zigorra, eta gehienez kontratuaren zenbateko osoaren % 50aren zenbateko baliokidea izango da.

Zigor-erregimen horrek ez du galarazten OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK ez-betetze horien aurrean kontratua ezeztatzea erabakitzeko ahalmena.

Zigorren zenbatekoak ez du kentzen OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK kontratistaren ez-betetzeek eragindako kalteengatik eta galerengatik eskubide osoz jaso dezakeen kalte-ordaina.

21. BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEA.

Kontratututako zerbitzua egiten amaitu, eta 90 egun naturaleko gehieneko epean, eta OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK eragozpenik jarri ezean, ikastolak behin betiko bermea itzuli edo ezeztatu beharko du.

22. ASEGURUAK.

Idazki honen 8. klausulan jasoarazi den moduan, kontratistak erantzukizun zibileko aseguru-poliza kontratatu beharko du. Poliza horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Sozietatearen edo enpresaren erantzukizun zibil orokor boluntarioa; garraioaren jarduera osagarriaren eta gehigarriaren ondorioz bidaiariak edo erabiltzaileak izan ditzakeen kalteei gehienez limiterik gabeko euroko mugara arte erantzungo dien erantzukizun zibileko aseguruia kontratatu izanaren justifikazioa – kontratuaren indarraldi osorako–, betiere Sustapen Ministerioaren Garraio

Zuzendaritza Nagusiaren 1/2003 Koordinazio Ebazpenean ezarritakoaren arabera, eta nahitaezko aseguruaren arloan indarrean dagoen legeria betetzea galarazi gabe.

- b) Bidaiarien nahitaezko aseguruaren abenduaren 22ko 1575/1989 Errege Dekretuaren arabera: erreferentziazko araudiaren arabera arautzen da bidaiarien nahitaezko aseguruaren heriotzako, baliaezintasun iraunkorreko, aldi baterako desgaitasuneko eta osasun-asistentziako bermeekin.
- c) Nahitaezko erantzukizun zibila.

23. DATUAK BABESTEIA.

Datu pertsonalak babesteari buruzko atal honetan ezartzen den guztia enpresa esleipendunak edo kontratistak OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEARI eskola-garraioko zerbitzugintzako kontratua gauzatzeko helarazten dizkion datuei aplikatuko zaie, baita, modu berean eta alderantziz, OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAK kontratistari kontratua gauzatzeko helaraz diezazkiokeen datuei ere, eta arreta berezia jarriko zaie ikasleen eta laguntzaileen/zaintzaileen datuei.

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraituta, jakinarazten dizugu zure datuak OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN titulartasuneko fitxategi automatizatueta txertatuko direla -Datuak Babesteko Erregistro Nagusia Inskribatuak-, eta legeak ezartzen duen moduan erabiliko dituela datuak. Fitxategi horiek kontratatutako zerbitzuan erabiltzeko edo OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREKIN lotzen duen harremana garatzeko sortu dira. Zure datu pertsonalak eskuratzeko, ezeztatzeko eta aurkakotzeko eskubideak erabili nahi badituzu, OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEARENGANA jo beharko duzu, idatziz, zure nortasuna egiaztatuta. Horretarako, datuak babestearen arduradunarengana zuzendu beharko duzu idatziz (Lasarte errepidea, z.g. 01007 Gasteiz, ikt@olabide.com,) edo 945.011.963 telefonoan eta 945.130.250 fax bidez).

Halaber, kontratistak OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEARI helarazten dizkion hirugarren batzuen datuen helburu bakarra da kontratu honetan xedatzen dena betetzea, hau da, idazki honen 2. klausulan deskribatzen den garraio-zerbitzua egitea; eta horretarako, hain zuzen ere, eman beharko dizkio datu pertsonal horiek datuen tratamenduaren arduradunari.

Tratamenduaz arduratzen den pertsonak fitxategiaren arduradunaren jarraibideen arabera soilik tratatuko ditu helarazi zaizkion datuak.

Emandako datuak ez dira aplikatuko edo erabiliko kontratu honetan adierazten denaz bestelako xede batekin, eta datu horien tratamenduaz arduratzen denak ez dizkie hirugarren batzuei jakinaraziko, ezta datuak kontserbatzeko ondorioetarako ere.

Datuen tratamenduaz arduratzen den pertsonak eta haren kargura dauden langileek zaindu beharko dute tratamendurako helarazi zaizkien datuekiko sekretua eta erabateko konfidentziasuna.

Datuen tratamenduaz arduratzen denak beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolamendukoak ezarri beharko ditu datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek baimenik gabe eskuratu, aldatu, tratatu, galdu edo lapurtu daitezzen saihesteko, betiere kontuak izanik teknologiaren egoera, bildutako datuen izaera eta dauden arriskuak –giza ekintzaren ondoriozkoak zein ingurune fisikoaren edo naturalaren ondoriozkoak–.

Kontratu hau baliogabetzen bada, datu guztiak suntsitu egingo dira edo fitxategiaren arduradunari itzuliko zaizkio, kontuan hartuta horiek jasoarazi ahal izan diren euskarri edo dokumentu guztiak: diskoetako datu-baseak, aldi baterako fitxategiak, segurtasun-kopiak, paper-euskarrian, eta abar

Aurreko puntuko eragiketa egin ostean, datuak tratatzeaz arduratzen denak idatzizko adierazpena eman beharko dio fitxategiaren arduradunari hala egin dela jakinarazteko.

Edonola ere, kontratu honetan aurreikusten ez den guztian aplikatzekoak izango dira datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua.

24. KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA, NAGUSITASUNA DESADOSTASUNEN KASUAN, ETA JURISDIKZIOA.

Lizitazio-prozedura honek eta prozeduraren ondoren sinatuko den emaitzazko kontratuak izaera erabat pribatua dute, eta ordena jurisdikzional zibilaren mende daude.

Agiri hau eta gainerako dokumentu erantsiek kontratu-izaera dute.

Hala ere, desadostasunik badago agiri honen, edozein dokumentu erantsiren eta kontratuaren artean, kontratuan itundutakoa nagusituko da.

Desadostasunak badaude, bi aldeak Gasteizko Epaitegien eta Auzitegien mende izango dira.

IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN Zuzendaritza Kontseilua

I. ERANSKINA

**2016/2017 IKASTURTERAKO ESKOLA-GARRAIOKO IBILBIDEAK ETA ORDUTEGIAK
(Ikus dokumentu erantsiaren laburpen-taula).**

II. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOKO EREDUA

OHARRA: Proposamena baliozkoa izango bada, eskatzen diren datu GUZTIAK bete beharko dira.

_____ jaunak/andreak, NAN _____ duenak, bere izenean jardunda / _____-ren izenean eta ordezkartzan jardunda, hau ematen du aditzera:

Osotasunean ezagutzen eta onartzen dituela ondoren zehaztuko den OLABIDE IKASTOLA, KOOP. ELKARTEAREN eskola-garraioko zerbitzuaren kontratazioa arautuko duten Baldintza Administratiboen Agiria eta Baldintza Tekniko Partikularren Agiria:

1. IBILBIDE BAKOITZARI ATXIKITAKO IBILGAILUAK:

1. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

2. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

3. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

4. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

5. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

6. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

7. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

8. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

9. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

10. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

11. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

12. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

13. ibilbidea:

Zerbitzuaren ordua:.....

Matrikula.....

Marka:

Matrikulazio-data:.....

Plaza kopurua (gidaria kanpo)

2. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Baldintza-agiriaren 2. klausulan aurreikusten denaren arabera, kontratuaren xedea osatzen duen garraio-zerbitzuaren osotasunaren prezioa. Prezio horretan ez da BEZa barnean hartu; sail independente gisa bideratuko da BEZa.

Prezio osoa, zifretan:

Prezio osoa, letretan:

BEZa zifretan (%):

BEZa letretan (%):

_____(e)n, 2016ko _____aren __ (e)(a)n

ESKAINTZAGILEA

Sin.: _____

Prezioa Gasteiztik kanpoko jolas- eta kultura-arloko irteeren edo txangoen prezioa orduko. Prezio horretan ez da BEZ barnean hartu, sail independente gisa bideratuko da.

Prezio osoa, zifretan:

Prezio osoa, letretan:

BEZa zifretan (%):

BEZa letretan (%):

_____(e)n, 2016ko _____aren __ (e)(a)n

ESKAINTZAGILEA

Sin.: _____

Prezioa Gasteiztik kanpoko jolas- eta kultura-arloko irteeren edo txangoen prezioa kilometroko. Prezio horretan ez da BEZ barnean hartu, sail independente gisa bideratuko da.

Prezio osoa, zifretan:

Prezio osoa, letretan:

BEZa zifretan (%):

BEZa letretan (%):

_____(e)n, 2016ko _____aren __ (e)(a)n

ESKAINTZAGILEA

Sin.: _____